

Mariaren Lagundia

La educación femenina en los sistemas escolares de Occidente ha sido una historia de minorización y marginalidad. Sin embargo, en ese contexto general, la Edad Moderna europea y las Iglesias cristianas de esa época ofrecen casos notables de iniciativas en pro del acceso de la mujer a la Escuela. La Compañía de María, Congregación femenina consagrada a la Enseñanza (1607,) es un ejemplo de ello.

Gure garaietan, mojen hainbeste ikastetxe eza-gutu dugun honetan, guztiz arrunta eta betidanikoa irudituko zaigu, beharbada, mojak dau-den tokietan ikastetxerik ere izatea; baina, egiaz, ez da hori beti horrela izan. Ikastetxe handi horiek beranduko historia dutela esan daiteke, eta horretan, hainbat XIX. mendetik dator eta asko XX. ekoa da.

Mariaren Lagundia (*Compañía de María*) bide berriak urratzeko jaio zen, eta gurean ere ekimen berritzaile bezala ageri zaigu hezkuntzaren alorrean.

Mariaren Lagundia (1607)

Mariaren Lagundia Jeanne de Lestonnac-ek (1556-1640) sortu zuen, eta Elizak onartutako moja irakasleen lehenengo Ordena izan zen; hau da, emakumearen hezkuntza-lana bere zeregin oso eta berariazkotzat hartu zuen lehenengo.

Jeanne de Lestonnac familia "oneko" alaba zen, Bordelen jaioa; hiri horretako alkate izandakoa zuen aitona, eta Michel de Montaigne idazle sonatua izan zuen osabetako bat. Hortaz, familiarie sonatuan etorri zen mundura Jeanne.

Trentoko Kontzilioaren bidetik, hainbat moja- etxe klausura hertsira biltzera behartuta suertatu zen sasoieta, Lestonnac-ek bere mojak

gizarteko heziketa-lanetarako libre nahi izan zituen, eta jarduera-modu hori Paulo V.ak Aita Santuak onartzea lortu zuen.


Ordurarteko emakumezkoen Ordenetan bezala, Mariaren Lagundiko Etxeak erabat beregainak izan ohi ziren, hau da, ez zuten Nagusi Jeneralik eta bestelako gobernu-erakunde orokorrik; bakoitzak bere autonomia osoa zuen. San Ignazioaren espiritualitatean oinarritu ziren lestonaktarrak, eta mojak bakoitzaren hezibide eta prestakuntzari garrantzirik handiena eman zioten.

Molde horretako erakundearekin, Frantziako Iraultzaren ondoren sortuko ziren emakumezko Kongregazioei bi mendetan aurrea hartu zien Mariaren Lagundiak, gizartean eta Elizan emakume eliztarrek zer-nolako zereginak har zitzaketan erakustean.

1975ean, 3.000 moja ziren Mariaren lagunak, 12 Probintzian banatuta eta 251 Etxerekin, eta 2008an 1.630 dira Lagundiko lekaimeak.

Euskal Herrian ere (1687...)

Frantziatik kanpo irekitako lehen ikastetxea Bartzelonakoa izan zen (1650) eta hurrengoak, hortik bertatik, Tuterakoa (1687). Hortaz, laster eta garaiz Euskal Herriratu ziren Mariaren Lagu-



nak. Tuterako Etxe horretatik eman zen hurrengo urratsa, Bergaran Ikastetxea irekiz (1799), izan ere, fundazioak Etxetik Etxera egiten baitziren garai haietan.

Badakigu, Lagundiak gertutik ezagutu zuela Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea, eta Adiskideek begi onez ikusi zutela Lagundiaren emakumezkoen aldeko ahalegina. Bergarako Ikastetxe hori ez zen sortu Adiskide haien oniritzirik gabe. Garaian garaiko haizeek sustaturik hedatu zen, bada, Euskal Herrian Mariaren Lagundia.

Horrela, Euskal Herriko Mariaren lagunen zabalkunde-gogoia nabaria izan zen Ordenaren barruan; baina ez XIX. mendeak ekarri zituen politika-aldarte zailak gainditu beharrik gabe. Lagundiko ikastetxeek ere ondasunak galdu zituzten, eta ondorio larri batekin: ordurarte doan eskaintzen ziren ikastaroengatik halako ordain-sariren bat eskatu beharra egon zen, lagunditarron borondatearen kontra.

Hori guztia gorabehera, Tuterak eta Bergarak hainbat Etxe berri sortu ahal izan zituzten: Tuterak bederatzik, Mexikon bezala Zaragoza, Valladolid eta beste tokitan. Tuteraren umea zen Bergarako Etxearen ekimenez ondorio izan ziren beste sei Ikastetxe, hasteko Donostia (1868) eta Urduña (1883) eta hauen eskutik beste bi: Irun (1923) eta A Coruña (1917).

XX. mendean garrantzizko bi data daude Lagundiaren historian: 1921ean, Ordenaren barruan Ikastetxe gehienei gobernu-batasun juridikoa eman zien Kongregazioa sortu zen, guztien Nagusi bakarra buru zuena; 1956an,

berriaz, artean batasun horretan ez zeuden Mariaren beste lagunak ere Kongregazio horretara bildu ziren.

Hortik aurrerako garapen berriak Kongregazioarenak izango dira, eta ez Etxe bakoitzak bere gisara sustatuak: aipatutako Irun lehenengo, eta Bilbo (1970) eta Iruñea (1996) ondoren.

Azken mendeak buruhauste eta lan-modu berriak ezarri dizkio Mariaren Lagundiari ere. Horren fruituak dira erabaki nagusi batzuk: Ahizparte Txikiak sortzearena (1969), eta Bilbon Ollargan (1970) eta Tuteran Etxeak ireki ziren, Kontzilioaren arrastoan abiatuz.

Garbi dago, han-hemen agertu diren ekimenetan, gizartetik baztertuen aldeko erronkari modu ausartagoan erantzun nahi izan diola Mariaren Lagundiak (adin txikiko desbideratuak, prostitutak, gaixo psikikoak, drogamenpekoak, etab.).

Gizarte zibila eta berorren eskakizunak, oro har, bertakoago egin dira Lagundiaren ikastetxeetan: irakasle laikoaren parte-hartzea gehituz joan da, gurasoena ere bai, eta irakaskuntzaren elebiduntzeak ere gora egin du Eskal Herrian; behar bada, Bergarako "Mariaren Lagundia Ikastola"-ren historia da horren adibiderik onena, 1977az geroztik horrela abiarazi zena.

2008ko udazkenean 9 Etxe daude irekita Euskal Herrian: horietako 4 Donostian, Irunen 2 eta Bergara, Bilbo eta Urduñan bana. Orotara, Lagundiko 87 moja dira Euskal Herriko Etxeetan bizi direnak.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610273580